TALENT HOUSE II ERAIKINEKO APARTAMENTUETARAKO SUKALDE EKIPAMENDUAK HORNITU ETA INSTALATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ LIZITAZIOA ERAENDU BEHARKO DUEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

1. KONTRATU XEDEA

Prozedura honen xedea Donostia Sustapena SAk Berariazko Administrazio Klausulen Plegu honetako **Karatularen 1. puntuan** (aurrerantzean, Karatula) jasotako zerbitzuak emango dituen kontratista bat aukeratzea da.

Zerbitzu horiek Plegu honetan, Baldintza Teknikoen Pleguan eta kontratistaren proposamenean jasotakoa betez emango dira.

Aurreikusita badago kontratuaren parte ezberdinak independenteki burutzea loteetan banatzearen bidez, **Karatularen 1. puntuan** alderdi hauek zehaztu behar dira: kontratua zer lote zehatzetan banatzen den; hala badagokio, lizitatzaile berdinak zenbat loteetarako eskaintza egin dezakeen; hala badagokio, lizitatzaile bakoitzari zenbat lote eslei dakizkiokeen; eta kasu bakoitzean zehazten diren alderdiak.

Karatularen 1. puntuan Kontratuaren CPV kodea adierazten da.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Donostia Sustapena S.A. da erakunde kontratatzailea (aurrerantzean, erakunde kontratatzailea).

Karatularen 2. puntuan adierazten da nor den Kontratazio Organoa. Hark, hala badagokio eta aplikagarriak diren zuzenbide pribatuko arauak betez, egoki deritzon pertsonei espresuki ahalmena eman ahal izango die kontratuari lotutako jarduerak zehatzak burutzeko.

3. ADJUDIKAZIORAKO PROZEDURA

Kontratua kalitate-prezio erlazio onena eskaintzen duen lizitatzaileari adjudikatuko zaio, prozedura irekiaren bidez, Plegu honetan jasotzen diren adjudikazioko irizpideak betez (aurrerantzean, eskaintzarik onena).

4. ALDAERAK

Karatularen 3. puntuan jasotzen da lizitatzaileek aldaerarik aurkez dezaketen.

Horrela izanez gero, **Karatularen 3. puntuan** aldaera horiei dagokienez jasota daude gutxieneko baldintzak, motak eta ezaugarriak, eta kontratuaren xedearekin zer-nolako lotura duten.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIO

Dokumentu hauek kontratu-izaerakoak dira:

- Berariazko Administrazio Klausulen Plegua eta haren Karatula.
- Baldintza Teknikoen Plegua.
- Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazten den beste edozer dokumentu-mota.

Kontratua egikaritzean adjudikaziodunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu, adostasunaren seinale.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA ONDASUNAK ENTREGATZEKO TOKIA

Karatularen 5. puntuan adierazten da kontratuaren iraupena eta ondasunak entregatzeko tokia.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Karatularen 6.1 puntuan adierazten da lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

Halaber, **Karatularen 6.1 puntuan** zehazten da kontratuaren prezioa.

Kontratuaren prezioak kontratua egikaritzeko kostu guztiak jasotzen ditu; adibidez:

- Kontratua gauzatzeko zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan jasotakoaren arabera. Horren ostean ez da fakturarik onartuko azken prezioan aurretiaz jasota egon beharko luketen kontzeptuengatik.
- Kontratuaren egikaritzeari dagozkien kontzeptuak eta kontratua egikaritzeko erabilitako langileen gastuak (hau da, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jaiegunetan egindako lanak, bajagatiko edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, norbanakoaren istripu-aseguruak, etab.) eta zergak (BEZ kanpo), aseguruak, lizentziak, garraioko eta joan-etorrietarako gastuak, baimenak eta gainontzeko gastu orokorrak.

- Kontratistak kontratua egikaritzeko erabili behar dituen bitartekoak, tresnak, ibilgailuak, ekipoak, baliabideak, ekipo informatikoak eta aparatuak.

- Erakunde kontratatzaileak zehaztutako lan- edo informazio-bilera guztietara bertaratzea, kontratuaren garapen eta betetze egokia ahalbidetzeko.

- **Karatularen 6.1 puntuan** zerrendatzen diren kontzeptuak.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Kontratuaren balio estimatua **Karatularen 6.2 puntuan** adierazten da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 101. artikuluan jasotakoaren arabera; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL).

Balio estimatu hori SPKLren 101. artikuluan jasotakoaren arabera kalkulatu da.

Aurreikuspen horren arabera, erakunde kontratatzaileak ez du konpromiso zehatzik.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Karatulako 7. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatularen 8. puntuan jasotakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilean argitaratuko dira:

a) Lizitazioaren deialdiari buruzko iragarkia.

b) Kontratuaren adjudikazioari buruzko iragarkia.

c) Kontratuaren egikaritzeari buruzko iragarkia.

d) SPKLren 63. artikuluan banan-banan aipatzen den gainerako informazioa.

Erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profil horretara web-orri honen bidez sartuko da: http://www.contratacion.euskadi.eus.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du **Karatularen 9. puntuan** adierazten den zenbatekoarekin.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak egiaztatu behar du behin betiko berme hori eratu duela 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoaren ordainketarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Behin betiko bermeak SPKLaren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die.

SPKLren 108. artikuluak bermea eratzeko modu ezberdinak aurreikusten ditu, eta ez du Gordailu Kutxa Orokorrean eratu beharrik izango.

Abal gisa aurkezten bada, Plegu honen **I. eranskinean** jasotako eredura egokituko da.

Bermearen osaera bitarteko elektronikoen bidez egiazta daiteke.

Kontratistari eskatu ahal zaizkion zigorrak edo kalte-ordainak behin betiko bermearekin ordaintzen badira, hark berme hori dagokion zenbatekoan birjarri edo zabaldu beharko du, hamabost egun naturaleko epean; osterantzean, kontratua amaitutzat emango da.

Kontratu-aldaketa baten ondorioz kontratuaren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea doitu beharko du, prezio berriarekin proportzio egokia mantentzeko. Kontratistak hamabost egun balioduneko epea edukiko du berme-aldaketa egiteko, aldaketa horren inguruko akordioaren berri ematen zaionetik zenbatzen hasita.

Bermea SPKLren 111. artikuluan jasotakoaren arabera itzuliko da, berme-epea amaitu eta kontratistak kontratuko betebehar guztiak bete dituenean.

Bermea erakunde kontratatzailearen aldeko txostena jaso eta gero itzuliko da.

Klausula honetan jasotzen ez diren aspektuei dagokienez, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoari men egin beharko zaio.

12. KONTRATATZEKO AHALMENA

Erakunde kontratatzailearekin kontrata dezakete jarduteko ahalmena duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek edo atzerritarrek, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute eta haien kaudimena egiaztatzen badute.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak emateko eska dakiekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodunak izango dira soilik Estatutuen edo sortze-arauen arabera kontratuaren prestazioak pertsona juridikoaren jardueraren helburuen, xedearen edo eremuaren barruan jasota daudenean.

Izatekotan ere, Europar Batasuneko Estatu Kideen edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmeneko kide diren estatuetako enpresa ez-espainiarrek erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko ahalmena dute, haien egoitza dagoen estatuko legediaren arabera prestazio hori emateko gaituta baldin badaude behinik behin; kasu horretan, SPKLren 67. artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

Enpresa horiek haien egoitza dagoen estatuko legediaren arabera dagokion prestazioa emateko baimen berezia edukitzea edo erakunde jakin bateko kide izatea ezinbestekoa denean, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko hitzarmenen ondorioz Espainiak eduki ditzakeen betebeharrez aparte, Europar Batasunetik edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmeneko estatu-kideetatik kanpo dauden pertsona fisikoek edo juridikoek txosten batekin egiaztatu behar dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak ontzat ematen duela enpresa espainiarrek SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen parekoak diren sektore publikoko erakundeekin kontrata dezatela, antzeko moduan. Espainiako Bulego Ekonomiko eta Komertzialak egingo du txostena, kanpo-bidetik, eta aurkezteko dokumentazioari erantsiko zaio.

Enpresariek aldi baterako enpresa-elkartea sor dezakete erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko, baina ez dute eskritura publikorik egin beharko kontratu adjudikatzen zaien arte; kasu horretan, SPKLren 69. artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

Karatularen 10. puntuan jasotakoa betez, lizitatzaileek gutxieneko baldintzak bete behar dituzte kaudimen ekonomikoari, finantzarioari eta profesionalari dagokionez.

Hala badagokio, lizitatzaileek behintzat **Karatularen 10. puntuan** adierazten diren giza baliabideak eta/edo materialak atxiki beharko dizkiote kontratuaren egikaritzeari.

Gehigarri moduan, eta hala badagokio, lizitatzaileek **Karatularen 10. puntuan** adierazten diren baldintza espezifikoak bete beharko dituzte.

Lizitatzaileek kontratua egikaritzeko zenbait giza baliabide eta/edo material atxikitzeko konpromisoa hartu behar badute, SPKLren 211. f) artikuluan jasotakoaren arabera kontratuko funtsezko betebeharretako bat izango da hori; ondorioz, konpromiso hori betetzen ez badute kontratua amaitutzat emango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

Irtenbidearen aukeran, kontratistak kontratua egikaritzeko atxiki duen pertsona alde bakarretik aldatzea erabakitzen badu, erakunde kontratatzaileak eska dezake konprometitutako pertsona hori berehala atxikitzeko edo —kontratistari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik hori ezinezkoa bada —prestakuntza eta esperientzia berdineko giza baliabideengatik berehala ordezkatzeko. Pertsona horrek erakunde kontratatzailearen baimen espresa eduki beharko du.

Lizitatzaileak, eskatutako kaudimena egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo tekniko edo ekonomiko baliabideetan oinarritu daitezke, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein dela ere, betiere kontratuak iraun bitartean kaudimena eta/edo baliabide horiek eskura edukiko dituztela egiaztatzen badute eta lagunduko dieten erakundeek kontratatzeko debekurik ez badute.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarrituko diren lizitatzaileek horrela adierazi beharko dute 1. gutun-azalean sartu beharreko deklarazio arduratsuan (hain zuzen, EKABen II. partearen C atalean).

Horretaz gain, aukerarik onena aurkezten duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa badu, beharrezko baliabideak edukiko dituela egiaztatu behar du erakunde horien idatzizko konpromisoaren bidez (**II. eranskinean** jasotako ereduari jarraiki prestatuko da).

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak erabiliko dituen erakundeek konpromiso hori notarioaren aurrean eman beharko dute, eskatutako kaudimena eta/edo baliabide-atxikipena egiaztatzeko, eta honela adieraziko dute: lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzak ezagutzen dituztela eta zenbaterainoko irismena duten; aipaturiko kaudimena eta/edo baliabide-atxikipena dutela (17. klausulan jasotakoa betez, eta horretarako egiaztagiria aurkeztuta); eta, lizitatzailea adjudikazioduna izaten bada, kontratua egikaritzeko beharrezko baliabideak haren eskura jartzeko nahia atzera bota ezinezkoa dela (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluaren onarpen espresa; haren ordezkapena edo aldaketa erakunde kontratatzaileak espresuki baimendu behar du). Idazki hori aurkezteak erakunde kontratatzaileak konpromiso hori onartzen duela esan nahiko du, delako lizitatzailea adjudikazioduna izatekotan.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak konpromiso hori aurkeztu beharko du 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoaren errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Klausula honetan aipatzen diren kontratatzeko gaitasuna, kaudimena eta debekurik eza ezinbestekoak dira eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta bere horretan mantendu behar dira kontratua hobetzen denean.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTUAK AURKEZTEA

13.1. PLEGUAK ETA GAINONTZEKO DOKUMENTU OSAGARRIAK ESKURATZEA

Pleguak eta gainontzeko dokumentu osagarriak erakunde kontratatzailearen kontratatzaile-profilean eskuragai egongo dira lizitazioaren iragarkia argitaratzen denetik proposamenak aurkezteko epemugara arte.

Pleguak eta gainontzeko dokumentu osagarriak bitarteko ez-elektronikoen bidez eskura badaitezke, horrela adieraziko da **Karatularen 11.1 puntuan**.

13.2. AURKEZPENEKO BITARTEKOAK

SPKLren hamabosgarren xedapen osagarrian jasotako baldintzak betez, proposamenak aurkezteko bitarteko elektronikoak erabiliko dira, SPKLren xedapen osagarriaren 3. atalean adierazitako egoeretako bat ematen ez bada eta **Karatularen 11.1 puntuan** horrela jasota ez badago behinik behin.

Proposamenen aurkezpen elektronikorako beharrezkoak diren informazioa eta zehaztapen teknikoak (data zifratzea eta balioztatzea barne), *Eusko Jaurlaritzaren* Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren web-orrian jasota daude: http://www.contratacion.euskadi.eus

Eskaintzak bidaltzeko bitarteko elektronikoak erabiltzen badira, bi fase daude: lehenbizi, eskaintzaren aztarna elektronikoa igorriko da, eta haren harrerarekin aurkeztuta dagoela joko da, helburu guztietarako; bigarrenik, eskaintza bera bidaliko da, 24 orduko epean gehienez. Adierazitako epean bigarren bidalketa hori egiten ez bada, eskaintza kendu egin dela iritziko zaio.

Eskaintzaren aztarna elektronikotzat jotzen da datu-multzoaren sortze-prozesuak bermatzen duenean datu horiek eskaintzaren beraren edukiarekin modu argian lotzen direla eta eduki horren aldaketak detektatzen dituztela, edukiaren integritatea bermatze aldera. Espedienteari atxiki beharreko dokumentuen kopia elektronikoek administrazio prozedura erkidearen arloan indarreko legediak jasotzen duena bete beharko dute, han ezarritako ondorioetarako.

Karatularen 11.1 puntuak aurreikusten badu proposamenak bitarteko ez-elektronikoen bidez aurkeztu behar direla, lizitatzaileek, eskuz edo postaz, Karatularen 11.1 puntuan adierazitako tokian eta orduan, hiru gutun-azal itxi aurkeztu beharko dituzte, geroago azalduko den dokumentazioarekin, alderdi hauek jasota utziz: kontratazio-lehiaketa, gutun-azalaren zenbakia (1. gutun-azala, 2. gutun-azala edo 3. gutun-azala, dagokiona), enpresaren izena eta proposamena sinatu duen pertsonaren izen-abizenak, izaera, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoa. Hori guztia modu irakurterraz batean egin beharko da.

Karatularen 11.1 puntuaren arabera proposamenak bitarteko ez-elektronikoen bidez aurkezteko ordutegi-muga ez da aplikagarria izango proposamenak postaz bidaltzen direnean, eta, kasu horretan, proposamenak aurkezteko epemugan edozein ordutan aurkeztu ahal izango dira, betiere hurrengo paragrafoan jasotako baldintzak betetzen badira.

Lizitatzaileak bere proposamena postaz bidaltzen badu, Postetxean bidalketaren ezarpen-data justifikatu behar du, eta erakunde kontratatzaileari egunean bertan jakinarazi behar dio eskaintza telex, fax (zenbaki honetara: 943444794) edo premiazko telegrama bidez bidali duela. Halaber, bidalketaren iragarkia posta elektroniko bidez bidal daiteke (helbide honetara: sustapenakontratazioak@donostia.eus). Posta elektronikoz bidalitako iragarkia baliotzat emango da soilik igorpeneko eta harrerako daten eta komunikazioen eduki osoaren frogak baldin badaude eta igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzen badira. Kasu horretan, kopia inprimatua eskuratu eta erregistratu egingo da, eta espedienteari atxikiko zaio. Bi baldintza horiek batera ematen ez badira, iragarkian adierazitako epemugatik kanpo jasotako dokumentazioa ez da onartuko. Edonola ere, adierazitako dataz geroztik 10 egun natural igarotzen badira, proposamena ez da inolaz ere onartuko.

13.3. GUTUN AZALEN EDO ARTXIBO ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak Pleguak eta haren Karatulak, Baldintza Teknikoen Pleguak eta kontratuzko gainontzeko dokumentuek jasotakora egokituko dira, eta horiek aurkeztearekin lizitatzaileak klausula guztiak onartzen dituela joko da, salbuespenik edo baldintzarik ezarri gabe.

Gutun-azal edo artxibo elektroniko bakoitzak jarraian datozen dokumentuak eta horien zenbakizko zerrenda bilduko ditu.

Alde batera utzita gutun-azal fisikoak (proposamenak bitarteko ez-elektronikoen bidez aurkezten direnean erabiltzen dira) edo artxibo elektronikoak (proposamenak bitarteko elektronikoen bidez aurkezten direnean erabiltzen dira) diren, 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala izena emango zaie, bereizketarik gabe.

1. gutun-azala. "AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, Plegu honi **III. eranskin gisa** atxikitako dokumentazioa Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (aurrerantzean, EKAB) inprimakira egokituko dela eta jarraian adierazitakoaren arabera beteko dela dioena:

   e) EKABa Europako kontratazio-agiri bakarraren inprimaki normalizatua ezartzen duen 2016ko urtarrilaren 5eko Batzordearen 2016/7 Egikaritze Unitatearen (EU) I. eranskinean jasotako jarraibideak betez bete beharko da.

   f) EKABaren "hautaketa-irizpideei buruzko IV. parteari" dagokionez, lizitatzaileek soilik A atala bete beharko dute: "hautaketa-irizpideei buruzko adierazpen globala".

   g) Plegu honen 12. klausularekin adostasunean, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzen bada, erakunde horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du, EKABaren II. eta III. parteen A ("operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B ataletan ("operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa") eskatutako informazioarekin.

   h) Hainbat enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa parte-hartzaile bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du, EKABaren II. partetik V. partera arte eskatutako informazioarekin.

2. Karatulako 10. puntuaren arabera, kontratua gauzatzeko giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk gutxienez esleitzea eskatzen bada, lizitatzaileek konpromisoa aurkeztu beharko dute kontratua gauzatzeko giza baliabide eta/edo baliabide material horiek esleitzeko, Plegu honetan **IV. Eranskin** gisa gehitutako ereduaren arabera.

3. Lehiaketan parte hartzeko aldi baterako enpresa-elkartea eratu nahi duten enpresariek noren izenean, zer zirkunstantziatan eta bakoitzak zer partaidetza edukiko duten adierazi behar dute, eta adjudikaziodunak izatekotan aldi baterako enpresa-elkartea formalki gauzatzeko konpromisoa hartzen dutela beren gain. Lehiaketan parte hartzeko aldi baterako enpresa-elkartea eratu nahi duten enpresariek solidarioki erantzun beharko dute, eta eskubideak gauzatzeko eta kontratua amaitzen den arte bertatik eratorritako betebeharrak betetzeko ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute nahikoa ahalmenekin; dena dela, mankomunitate bidez gauzatutako ahalordeak egon daitezke zenbateko handia kobratzeko eta ordaintzeko.

4. Atzerriko enpresek deklarazio espresa aurkeztu beharko dute, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen intzidentzia guztietarako Espainiako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioari men egiten diotela, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko egiten diotela adieraziz.

OHARRA:

Erakunde kontratatzaileak lizitatzaileei egiaztagiri guztiak edo horietako batzuk aurkezteko eska diezaieke, 1. puntuan jasotako deklarazioaren iraupenaren edo fidagarritasunaren inguruan arrazoizko zalantzak daudenean edo prozeduraren garapen onerako beharrezkoa denean.

Edonola ere, enpresaria Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta edo Europar Batasuneko Estatu Kide baten datu-base nazional batean jasota badago enpresaren espediente birtual, dokumentuen biltegiratze-sistema elektroniko edo aurre-sailkapeneko sistema baten gisa, eta aipaturiko organoek horiek doan eskura baditzakete, enpresariak ez du toki haietan inskribatutako datuen egiaztagiririk edo beste frogagiririk aurkezteko betebeharrik.

2. gutun-azala: "BALIO JUDIZIO BATEN BIDEZ KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek gutun-azal honetan **Karatularen 11.2 puntuan** adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Lizitatzaileak arreta berezia emango dio gutun-azal honetan sartu beharreko dokumentazioaren prestaketari, eta edukiari buruzko jarraibideak bete beharko ditu. Halaber, ezingo da ezer esan eskaintzaren alderdi ekonomikoei buruz.

Oinarri horiek hausten dituzten eskaintzak atzera bota eta prozeduratik kanpo geratuko dira.

Erakunde kontratatzaileak egoki deritzon egiaztapen-lanak egin edo beharrezkoa dela iritzitako dokumentu osagarriak eska ditzake, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela frogatzeko.

3. gutun-azala: "FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI

BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute Plegu honi **V. eranskin** gisa erantsitako ereduari jarraiki.

Erakunde kontratatzaileak adjudikazioaren aurretik eta ostean egiazta dezake 1., 2. eta 3.gutun-azaletan sartutako agirien edukia egiazkoa dela, eta iritziko zaio enpresak aurkeztutako datuak eta zirkunstantziak gezurrezkoak badira kontratua amaitutzat eman daitekeela, kontratistari egotz dakizkiokeen ez-betetzeengatik.

14. ADJUDIKAZIOKO IRIZPIDEAK

Karatularen 12. puntuan jasota daude adjudikazioko irizpideak eta dagokien haztapena.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Kontratazio Organoari **Karatularen 13. puntuan** adierazten diren kidez eratutako Ebaluazio Batzordeak lagunduko dio.

16. PROPOSAMENAK ZABALTZEA

Ebaluazio Batzordeak aurretiaz kalifikatuko du 1. gutun-azalean jasotako dokumentazioa ("aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa") garaiz eta behar bezala aurkeztua izan dena. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak antzematen badira, erakunde kontratatzaileak lizitatzaileari hiru egun naturaleko epea emango dio akats horiek zuzentzeko.

Gero, 2. gutun-azala irekiko da barneko egintzan ("balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa"), bertan jasotako dokumentazioa aztertzeko eta baloratzeko.

Balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideei haztapen handiagoa egozten bazaie formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino, balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideak **Karatularen 14. puntuan** adierazten diren kideekin eratutako Batzordeak baloratuko ditu.

2. gutun-azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratu ostean, 3. gutun-azala irekiko da ("formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa").

3. gutun-azala ireki baino lehen (formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa"), lizitatzaileei balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren emaitza jakinaraziko zaie.

Ondoren, 3. gutun-azalean ("formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") jasotako dokumentazioa irekiko da, dokumentazio hori aztertzeko eta baloratzeko.

Edonola ere, 3. gutun-azala ("formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") jendaurrean zabaldu da, **Karatularen 11.1 puntuan** jasotakoaren arabera proposamenak bitarteko elektronikoen bidez aurkezten ez badira behinik behin.

3. gutun-azala (formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa) jendaurrean zabaltzen bada, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie 3. gutun-azala (formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa) zer egunean, orduan eta tokian zabalduko den. Alderdi horiek erakunde kontratatzailearen profilean argitaratuko dira halaber, behintzat 48 orduko aurrerapenarekin.

Ebaluazio Batzordeak 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan jasotako kausetako batean dauden proposamenak baztertuko ditu, eta Kontratazio Organoari aurkeztutako proposamenen zerrenda aurkeztuko dio, beheranzko ordenan sailkatuta, **Karatularen 12. puntuan** aipatzen diren adjudikazio-irizpideei jarraiki, eta eskaintzarik onena identifikatuko du.

Proposamena egin aurretik egoki deritzon txosten teknikoak eska ditzake.

Karatularen 12. puntuan adierazitako parametroen arabera, hala badagokio, puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza ohikoa baino askoz ere txikiago adela irizten bada, Ebaluazio Batzordeak SPKLren 149. artikuluan jasotako prozedura jarraituko du, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Adjudikazioko proposamenak ez dio inolako eskubiderik emango proposaturiko lizitatzaileari, erakunde kontratatzailearen aurrean. Edonola ere, Kontratazio Organoak kontratua proposamenari jarraikiz adjudikatzen ez badu, bere erabakia arrazoitu beharko du.

17. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Adjudikaziorako lizitatzailea hautetsia aukeratzean, Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzordeak egindako proposamena oinarritzat hartu behar du, arau orokor gisa. Osterantzean, Kontratazio Organoak hartutako erabakia arrazoitu beharko du, eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena egingo du.

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzordearen proposamena onartzen duenean, erakunde kontratatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, dokumentu hauek aurkez ditzala:

1. Eskaintza aurkezteko epemugan erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak eta Plegu honen 12. klausulan eskatutako gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen dituela eta kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatzeko agiriak, jarraian adierazitako moduan.

Proposamena egin duten enpresariek aldi baterako enpresa-elkartean lehiatzeko asmoa badute, aipaturiko dokumentazioak elkarte hori eratuko duten enpresa guztiei aipamena egin behar die.

(i) Lizitatzailearen —eta, hala badagokio, haren ordezkariaren— nortasunari eta jarduteko ahalmenari dagozkion egiaztagiriak:

- Enpresariak pertsona juridikoak direnean, haien jarduteko ahalmena osaerako eskrituraren edo agiriaren, Estatutuen edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da, eta pertsona juridiko motaren arabera jasota geratuko dira haren jarduera erregulatzen duten arauak, hala badagokio, dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatu direnak.

- Europar Batasuneko estatu kideetako enpresari ez espainiarren jarduteko ahalmena dagokion erregistroko inskripzioarekin egiaztatuko da, haien egoitza dagoen estatuko legediaren arabera, edo bestela, zinpeko deklarazioa edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, erkidegoko xedapen aplikagarriekin adostasunean.

- Atzerriko gainontzeko enpresarien jarduteko ahalmena Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena dagokion estatuan edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko bulego kontsularrean aurkeztearen bidez egiaztatuko da. Txosten horren bidez egiaztatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak aldi berean onartzen duela enpresa espainiarrek SPKLren 3. artikuluan zerrendatzen direnen moduko sektore publikoko erakundeekin eta organismoekin kontrata dezaketela, antzeko moduan.

- Enpresariak pertsona fisikoak direnean, haien jarduteko ahalmena Nortasun Agiri Nazionala edo dagokion estatuan baliokidea den agiria aurkeztearen bidez egiaztatuko da.

- Beste baten izenean esku-hartzen edo proposamenak sinatzen dituztenen kasuan, Nortasun Agiri Nazionaren kopia aurkeztuko dute, eta horretarako ahalmen nahikoa eduki beharko dute. Enpresa pertsona juridikoa denean, ahalmen hori Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar da, horrela jasota badago Merkataritza Erregistroko Araudiaren 94. artikuluan, edo, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera dagokion Erregistro Publikoan.

Dokumentu horiek guztiak originalak edo fotokopia konpultsatuak izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek atal honetan eskatzen den dokumentazioaren ordez erregistroaren abokatu arduradunak igorritako indarreko inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkez dezakete (i). Inskripzio-ziurtagiriarekin batera lizitatzaileak sinatutako deklarazio

arduratsua aurkeztu behar da, eta horri jarraikiz adierazi behar da agiri honetan jasotako baldintzak bere horretan mantentzen direla.

(ii) Plegu honen 12. klausulan eskatutako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa. Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozio-bolumena egiaztatzeko aurkeztuko dira:

  - Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordetako urteko kontuak, baldin eta enpresaria erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordetakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresari indibidualek beren urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatzen dituen urteko kontuen eta inbentario-liburuen bidez egiaztatuko dute.

  - Lizitatzaileak bere negozio-bolumenaren inguruan sinatutako deklarazio arduratsua.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Hala badagokio, kaudimena azken hiru urteetan egindako zerbitzuen edo lanen zerrendaren bidez egiaztatuko da, adierazita utziz horien zenbatekoa, data eta hartzailea publikoa edo pribatua den. Hartzailea sektore publikoko erakundea denean, burututako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak igorritako edo onetsitako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira; aldiz, hartzailea subjektu pribatua denean, hark igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, eta, ziurtagiririk ezean, enpresariaren adierazpenarekin eta prestazioa burutu dela egiaztatzeko eskura dituen dokumentuekin.

  Kontratista sorrera berriko enpresa bat denean, hots, bost urtetik beherako antzinatasuna duenean, haren kaudimen teknikoa SPKLren 90.1 artikuluaren b) letratik i) letrara aipatzen diren bitarteko bat edo batzuk erabiltzearen bidez egiaztatuko da, baina a) letrak zerbitzu-kopuru jakin bat egikaritzeari buruz jasotzen duena ez da inolaz ere aplikatuko.

- Sailkapena: Hala badagokio, sailkapena organo eskudunak igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, eta, horrekin batera, lizitatzaileak deklarazio arduratsua aurkeztuko du, haren iraupena eta ziurtagiri horretan jasotako zirkunstantziak bere horretan mantentzen direla adieraziz. Adjudikazioduna izaten bada, adierazpen hori kontratua gauzatuko den agirian errepikatu egin behar da.

  Ziurtagiriak egiaztatu behar du lizitatzailea zehaztutako taldean eta azpitaldean sailkatuta dagoela, lehen aipatutako kategoria berdinean edo goragokoan.

Ziurtagiri horrek, halaber, klausula honen 1.(i) atalean adierazten diren zirkunstantziak egiazta ditzake, hau da, lizitatzailearen —eta, hala badagokio, haren ordezkariaren— nortasuna eta jarduteko ahalmena.

(iii) **VI. Eranskin** gisa oraingo Agiriari erantsitako ereduari dagokion erantzukizuneko adierazpenaren bidez, lizitatzaileak ez du Sektore publikoko Kontratuaren Legeko (SPKL) 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko inolako debekurik.

(iv) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

(v) Hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako eskakizun zehatzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak.

2. Hala badagokio, kontratuari atxikitzea hitzemandako giza baliabideak eta materialak edukitzearen egiaztagiria.

(i) Hala badagokio, lizitatzaile hautatuak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, kontratua egikaritzeko atxikiko dituela hitzemandako giza baliabideei dagokienez:

i) Kontratuaren egikaritzeari atxikitako taldekideen izenak, eta haien curriculum vitaeak, eskakizun hauek betetzen dituztela egiaztatzeko:

1. Titulazio akademiko ofiziala.

2. Esperientzia dagokion eremuan.

3. Erakunde kontratatzaileak eskatutako beste alderdi batzuk.

j) Giza baliabideen eskuragaitasunari buruzko egiaztagiriak.

Azaldu behar da datuen babesaren araudian aurreikusitakoa jarraituz eta informazio mota kontuan hartuz, giza baliabideen agirietan dagoen informazioa, (i) lizitatzailea datuen tratamenduaren arduraduna izango dela eta beraz datuen bilketa eta Erabilera bere Ardurapean daude. (ii) Eta kontratatu duen enpresari eman behar dio aurrean dagoen Klausulan azaltzen den bezala. Berak komunikazioa egingo du eta datuen lagatzailea izango da

Horretarako, aukeratutako lizitatzaileak datuen babeseko araudian berari dagozkion betebeharrak egingo ditu. Aurreko paragrafoan azaldutako datuen komunikazio eta trataera ere kontuan hartu beharko ditu. Enpresa datuen tratamenduaren arduraduna da eta aukeratutako lizitatzailearen ardura da bereziki interesatuen baimena lortzea aurretik aipatutako datuen komunikazioa onartzen duena. Ardura hau berarena da soilik. Kontratatzen duen erakundeak eskatzen duenean hau frogatu behar izango du.

(ii) Hala badagokio, lizitatzaile hautatuak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, kontratua egikaritzeko atxikiko dituela hitzemandako baliabide materialei dagokienez:

k) Kontratuaren egikaritzeari atxikitako bitarteko materialak eta eskakizunak betetzen dituenaren egiaztagiriak.

l) Baliabide materialen eskuragaitasunari buruzko egiaztagiriak.

Erakunde kontratatzaileak egoki deritzon egiaztapen-lanak egin edo beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu osagarriak eska ditzake, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela frogatzeko.

3. Plegu honen 11. klausulan aurreikusitako behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

4. Hala badagokio, adierazpenen notarioaren akta, baldin eta lizitatzaileak eskatutako kaudimena eta/edo baliabide-atxikipenaren konpromisoa egiaztatzeko beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritzeko asmoa badu, **II. eranskineko** ereduari jarraiki.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartearen legezko osaera egiaztatzea. Horretarako, enpresa-elkartearen ordezkari edo ahaldundu bakarra izendatu beharko da, eskubideak gauzatzeko eta kontratutik eratorritako betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoarekin, kontratua amaitzen den arte.

Erakunde kontratatzaileak egoki deritzon egiaztapen-lanak egin edo beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu osagarriak eska ditzake, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela frogatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak antzematen badira, erakunde kontratatzaileak lizitatzaileari hiru egun naturaleko epea emango dio akats horiek zuzentzeko.

Dokumentazioa aurkezteko errekerimendua adierazitako epean betetzen ez bada edo aurkeztutako dokumentazioak konpon ezinezko akatsak edo omisioak baditu, lizitatzaileak eskaintza baztertu duela iritziko zaio, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZ kanpo) zehapen gisa. Halaber, eskaintzen sailkapen-ordenari jarraiki hurrengo lizitatzailearen dokumentazio berdina jasoko da.

Kontratazio Organoak kontratua adjudikatuko du dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan, eta proposamenak zabaltzen direnetik gehienez 2 hilabeteko epean.

Adjudikazioa Kontratazio Organoaren erabaki arrazoituaren bidez egingo da, eta horrela jakinaraziko zaie bai hautagaiei bai lizitatzaileei, jakinarazpenetarako aukeratu dituzten bitartekoen bidez. Halaber, erakunde kontratatzailearen profilean argitaratu behar da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua burutzeko, formalizatu egingo da.

Kontratua dokumentu pribatu bidez formalizatuko da, eta dokumentu hori lizitazio-baldintzen araberakoa izango da zehatz-mehatz. Formalizatzen den dokumentuak ez du inolaz ere kontratazioaren baldintzak aldatzen duen klausularik izango.

Adjudikaziodunak, nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzea eska dezake, eta haren kargura izango dira dagozkion gastuak.

Formalizazioa ezin izango da hamabost egun baliodun baino lehen egin, lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratuaren formalizazioa eta dagokion kontratua erakunde kontratatzailearen profilean argitaratuko da, hamabost egun naturaleko epean gehienez ere, kontratua burutu ostean.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ez bada kontratua adierazitako epearen barruan formalizatzen, lizitazio-oinarriaren aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZ kanpo) zehapen gisa. Zenbateko hori behin betiko bermearen kargura ordainduko da, SPKLaren 71. Artikuluaren 2) ataleko b) hizkian ezarritakoa alde batera utzita. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzen sailkapenaren ordenari jarraituz. Horretarako, Plegu honen 17. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu behar da aurrena, eta hamar egun balioduneko epea ematen da horretarako.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izendatuko du, eta hari dagokio kontratuaren egikaritzapena gainbegiratzea eta dagozkion erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, hitzartutako zerbitzua behar bezala ematen dela ziurtatzeko, erakunde kontratatzaileak egozten dizkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa ala juridikoa izan daiteke, eta erakunde kontratatzailearekin lotuta egon ala kanpokoa izan.

Kontratistak halabeharrez bete behar ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

Edonola ere, kontratistaren erantzukizuna izango da web orrialdearen eta/edo sare sozialen bitartez hedatutako edukiek indarrean dagoen legedia errespetatzea eta moral eta ordena publikoa ez urratzea edota erakunde kontratugilearen eta/edo edozein hirugarrenaren izen ona eta irudia ez kaltetzea bermatzea.

Aurrekoa kontuan hartuta eta eduki jakin bat hedatzea erakunde kontratugileak izendatutako kontratuaren arduradunak berariaz baimendutakoan izan ezik, kontratistak izango du kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek kontzeptu horien inguruan aurkez ditzaketen

erreklamazio guztien erantzukizuna, eta erakunde kontratugileari ordaindu beharko dizkio erreklamazio horietatik erakundearentzat sorturiko kalte-ordain guztiak.

20. KONTRATUA EGIKARITZEA

Kontratua baldintza hauen arabera egikarituko da:

a) Kontratistak honako hauen arabera egikarituko du kontratua: kontratuaren baldintzak eta zehaztapenak eta Berariazko Administrazio Klausulen Pleguan eta haren Karatulan, Baldintza Teknikoen Pleguan eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan ezarritakoa eta kontratua interpretatzean erakunde kontratatzaileak kontratistari ematen dizkion jarraibideak.

b) Kontratu honetan, lanbidearen, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloetan aplikatzen diren indarreko legezko, arauzko eta konbentziozko xedapenak bete behar dira.

   2. gutun-azalak balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideei dagokien dokumentazioa jasotzen du, eta testuinguru horretan, lizitatzaileek adieraziko dute zer hitzarmen kolektibo aplikatu behar zaien kontratuaren helburu den jarduera burutzen duten langileei, adjudikaziodun izanez gero. Kontratistaren arabera kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren gaineko informazioa esleipenaren ebazpenean jasoko da eta kontratatzailearen profilean argitaratu.

   Horrez gain, kontratistak behar beste informazio eman behar du behin kontratua esleituta langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.

   Kontratuaren egikaritze osoan zehar, kontratistak aplikaziozkoa den sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordainduko du, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ez da inolaz ere bertan ezarritakoa baino txikiagoa izango.

   Atal honetan xedatutakoa egikaritze-baldintza berezia eta oinarrizko betebeharra da, SPKLaren 211.f) artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta, hortaz, hautsiko balitz, kontratua amaitutzat emango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

c) Kontratua kontratistaren gain eta galorde egikarituko da.

d) Erakunde kontratatzaileak kontratu-betebeharrak zuzen betetzen direla eta kontratua behar bezala egikaritzen dela kontrola, egiazta eta gainbegira dezake, edozein unetan eta edozein bitartekorekin.

   Horretarako, erakunde kontratatzaileak egoki deritzon kanpo-laguntza eskura dezake, kontratu-betebeharrak zuzen betetzen direla eta lanak kalitate-maila egokiarekin gauzatzen direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko.

Erakunde kontratatzaileak zerbitzuei buruz eskatzen dizkion adina datu emango ditu kontratistak, beharrezkoa den laguntza guztia emango du inolako kostu osagarririk gabe, eta zerbitzuekin lotuta dagoen laneko, administrazioko eta bestelako dokumentazioa eskura jarriko dio ere.

Kontratistak ezingo ditu erakunde kontratatzailearen ikuskapenak eta kontrolak oztopatu.

Hala ere, erakunde kontratatzaileak urratzerik edo erreparorik antzemango balu, kontratuaren arduradunari jakinaraziko dio, eta hari dagozkio zerbitzua ematen duen langileak antolatzeko, gainbegiratzeko, eta, hala badagokio, zigortzeko azken eskumenak.

e) Langile guztiak kontratistaren mende egongo dira, eta hark izango ditu enpresaburuei dagozkien eskubideak eta betebeharrak. Hala, ezin dizkio erakunde kontratatzaileari lan-harreman horietatik eratorritako betebeharrak edo gainontzeko betebeharrak erreklamatu.

Kontratista izango da kontratua egikaritzen diharduten langileekin lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren (judiziala edo judizioz kanpokoa) erantzulea, berezko langileak zein azpikontratazio zehatzetakoak izan, eta erakunde kontratatzaileak ez ditu bere gain hartuko kontratistak zuzenean nahiz zeharka hartzen dituen erantzukizunak, lanari (laneko segurtasunaren, higienearen eta osasunaren gainekoak barne), Gizarte Segurantzari edo zergei dagokienez. Era berean, kontratistak bere gain hartuko du kontratua egikaritzeagatik gerta litezkeen ezbeharren erantzukizun guztia.

Kontratistak Europar Parlamentuko eta 2016ko apirileko 27ko Kontseiluko Arauditik 2016/679ko (EB) eratortzen diren obligazioak bete behar izango ditu. Obligazio hauek pertsona fisikoaren babesari dagozkio, zehatz-mehaz, datu pertsonalak eta datu horien zirkulazio librearen inguruan 3/2018 Lege organikoan, abenduaren 5ekoan. Kontratistak, bere kabuz eta erabakiz, datu pertsonalak eta eskubide digitalen bermea eta kontratua indarrean dagoen bitartean, datuen babesari dagozkion beste edozein arautako datu pertsonalen tratamenduaz aplikagarria dena bete behar izango du tratamenduaren arduraduna baita.

Arestian aipatutako obligazioa ezartzen da erakunde kontratatzaileak datu pertsonalen tratamendua dela eta Karatulako 17. puntuan zehazten denari kalte egin gabe.

Kontratistaren betebeharra da **Karatularen 15. puntuan**, kasuan kasu eta berariaz, adierazitako baldintzak betetzea.

21. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Hauek dira kontratu-betebeharrak:

a) Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, klausuletan eta Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritakoari zorrozki jarraituz.

b) Sukaldeko ekipamendua entregatzeko epea eta Karatularen 5. puntuan ezarritako instalazio-epea edo, hala badagokio, eskainitako epe laburragoak betetzea.

c) Karatularen 25. puntuan ezarritako berme-epea betetzea.

d) Kontratu honetan, lanbidearen, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloetan aplikatzen diren indarreko legezko, arauzko eta konbentziozko xedapenak betetzea.

e) Kontratistaren eskaintzan hitzemandako giza baliabideak, berezkoak edo azpikontratatutako enpresakoak, eta/edo baliabide materialak atxikitzea kontratuari .

f) Haren kargura lortzea jarduera aurrera eramateko beharrezkoak diren beste lizentzia eta baimen.

g) Unean aplikaziozkoa den indarreko sektore-araudiak ezarritakoaren arabera ematea horniketa. Horretarako, kontratistak eta haren langileek unean indarrean dagoen araudiak eskatutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko ziurtagiri guztiak izango dituzte.

h) Behin betiko bermea mantentzea eta birjartzea.

i) Kontratua egikaritu bitartean, Plegu honetako 20. klausulan kontratistari eskatzen zaizkion estaldurak eta berezko aseguruak kontratatzea edo mantentzea, gutxienez.

j) Kontratua egikaritzean burutu beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzea.

k) Kontratistaren betebeharra da **Karatularen 16. puntuan**, kasuan kasu eta berariaz, adierazitako baldintzak betetzea.

Atal honetan eta **Karatularen 16. puntuan** xedatutako betebeharrak egikaritze-baldintza bereziak eta oinarrizko kontratu-betebeharrak dira, SPKLaren 211.1 f) artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta, hortaz, hautsiko balira, kontratua amaitutzat emango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

22. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratistak erakunde kontratatzaileari ziurtatu beharko dio, kontratazio honen ondorioz, erakunde kontratatzailearentzat hornitzen eta/edo instalatzen dituen ondasun, ekipo edo bestelako aktibo guztiak modu baketsuan erabiliko dituela. Horretarako, erakunde kontratatzailearen alde baimendutako iturriak eman edo lortu beharko ditu, bere kontura eta kostu gehigarririk gabe, elementu eta/edo osagai horien (hardwarea eta softwarea barne, hala dagokionean) gaineko edozein erabilera- eta/edo ustiapen-lizentzia eta -eskubide. Hori guztia, erakunde kontratatzaileak ekipo horiek eta horien osagaiak erabili eta ustiatu ahal izateko behar

diren modu eta baldintzetan, agiri honetan eta kontratazio hau arautzen duen Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, kontratista izango da kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek kontratu honen xede diren ekipoei eta ekipo horietako kide bakoitzari buruz jabetza intelektualari edo/eta industrialari buruz aurkez ditzaketen erreklamazio guztien erantzulea, eta kalte-ordaina eman beharko dio erakunde kontratatzaileari kontzeptu horiei buruzko erreklamazioetatik sor dakizkiokeen kalte eta galera guztiengatik.

Ondorioz, eta **Karatularen 19. puntuak** kasuan kasu berariaz ezartzen duena alde batera utzi gabe.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO BETEBEHARRA

Indarreko legediak informazio publikoa eskuratzeari buruz ezartzen duena eta SPKLak esleipenaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz xedatzen duena alde batera utzi gabe, erakunde kontratatzaileak ezin du lizitatzaileek emandako informazioa hedatu, eskaintza aurkeztean konfidentziala dela adierazi badute. Konfidentzialtasunak barne hartzen ditu, besteak beste, sekretu teknikoak edo komertzialak, eskaintzen alderdi konfidentzialak eta lizitazio-prozedura honetan edo hurrengoan lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozer informazio.

Kontratistak errespetatu beharko du kontratua egikaritzean eskuratzen duen, Pleguan edo kontratuan isilpekotzat adierazi den edo duen izaerarengatik isilpean mantendu behar den informazioaren konfidentzialtasuna.

Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra **Karatulako 18. puntuan** adierazitako denboraz mantenduko da.

24. ERANTZUKIZUNA

Kontratista izango da garatzen dituen lanen eta emandako prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, bai eta erakunde kontratatzaileak edo hirugarrenek kontratua egikaritzean gerta litezkeen ez-betetzeen, akatsen, metodo desegokien edo erabaki okerren eraginez jasan dezaketen ondorioen erantzule ere.

Kontratistaren betebeharra da kontratua egikaritzean burutu beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzea.

25. ASEGURUAK

Kontratuak irauten duen denbora osorako, kontratistak **Karatularen 20. puntuan** adierazitako aseguruak kontratatuko ditu haren kontura, bertan adierazitako baldintza eta zehaztapenen arabera.

26. ZIGORRAK

a) Atzerapenengatiko zigorrak.

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Plegu honetan eta/edo Karatulan ezarritako epeetako edozeinetan atzeratzen bada, erakunde kontratatzaileak aukera du: kontratua ezeztatzea, Plegu honen 33. Klausularen baldintzetan; edo egikaritzen jarraitzea, eta, azken kasu horretan, erakunde kontratatzaileak, dagozkion kalte-galeren ordainez gain, **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zehapenak ere jasoko ditu.

Kontratista atzeratzen bada, erakunde kontratatzaileak ez du eskakizunik egin beharko aurrena.

b) Kontratatutako prestazioak modu akastunean gauzatzearen edo kontratu-baldintzak haustearen ondoriozko zehapenak.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratatutako prestazioak modu akastunean gauzatzen baditu edo kontratu-baldintzak hautsi, erakunde kontratatzaileak aukera du: kontratua ezeztatzeko, Plegu honen 33. Klausularen baldintzetan; edo egikaritzen jarraitzea, eta, azken kasu horretan, erakunde kontratatzaileak, dagozkion kalte-galeren ordainez gain, **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zehapenak ere jasoko ditu.

Kontratistari eman beharreko guztizko ordainketatik edo ordainketa partzialetatik kenduko zaizkio zehapenak. Ezin direnean kopuru horietatik deskontatu, bermetik kenduko dira, eta zehapenak bermea gainditzen badu, dagokion aldea erreklamatuko da.

Edonola ere, kontratua ezeztatzea nahiz jarraitzea erabaki, erakunde kontratatzaileak aldebakarrean erabaki dezake jarraitzea beharrezkotzat jotzen duen denboraz, berezko baliabideekin edo hirugarrenen baliabideekin, eta kasu bietan, kontratistak ordainduko du jarraitzearen kostua, Klausula honetan aurreikusiko kalte-galerez eta gainontzeko ondorioez gain.

27. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLaren 98. artikuluak kontratista ordezteko ezartzen dituen kasuez aparte, kontratuaren aldaketa subjektiboa egiteko kontratua laga behar da ezinbestean, klausula honetan ezarritako mugen barruan eta **Karatularen 22. puntuak** aukera hori ematen badu, betiere.

Lagapena egiteko, SKLParen 214.2 artikuluaren a), b), c) eta d) hizkietan eskatutako baldintzak bete behar dira; hona hemen:

a) Kontratazio Organoak aurretiaz eta berariaz baimena ematea lagapena egiteko, SPKLaren 214.2.a) artikuluan ezarritako baldintzetan. Bi hilabeteko epea dago baimen-eskaeraren ebazpena jakinarazteko, eta epe hori igarota, onartu dela iritziko zaio.

b) Lagatzaileak kontratuaren % 20 egina izatea behintzat, SPKLaren 214.2.b) artikuluan ezarritako baldintzetan.

c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko gaitasuna izatea, eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa edo profesionala edukitzea eta kontratatzeko debekurik ez izatea, SPKLaren 214.2.c) artikuluan ezarritako baldintzetan.

d) Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publiko bidez egitea, SPKLaren 214.2.d) artikuluan ezarritako baldintzetan.

Lagapen-hartzaileari subrogatuko zaizkio lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak.

28. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin hitzar dezake prestazioa partzialki egitea, klausula honek eta SPKLaren 215. artikuluak ezartzen dutenaren arabera, **Karatularen 23. puntuak** adierazitako prestazioak izan ezik.

Kontratistak, kontratua esleitu ostean eta kontratua egikaritzen hastean beranduenez, Kontratazio Organoari idatziz jakinarazi beharko dio asmoa duela azpikontratuak egiteko, eta adierazi beharko dio prestazioaren zer zati azpikontratatuko duen, bai eta azpikontratistaren nortasunaren, kontratu-datuen eta legezko ordezkaria edo ordezkarien berri eman ere. Halaber, justifikatu beharko du azpikontratistak zati hori burutzeko gaitasun nahikoa duela, haren elementu teknikoak eta giza elementuak eta esperientzia azalduz, eta kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatu beharko du, SPKLaren 71. artikuluari jarraikiz.

Kontratista nagusiak Kontratazio Organoari idatziz jakinarazi behar dio informazio horrek kontratu nagusia egikaritu bitartean izandako edozein aldaketa, eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia eman.

Azpikontratistak azpikontratatzen den kontratu zatia egiteko sailkapen egokia badauka, hori jakinaraztea nahikoa izango da haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua burutu eta berehala egin daiteke, premiazko egoera bati aurre egiteko beharrezkoa bada edo egoerarengatik premiazko neurriak hartu behar badira eta nahikoa arrazoibidez justifikatzen bada.

Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean baino ez da obligaziodun, eta, beraz, erakunde kontratatzailearen aurrean, kontratista nagusiak bere gain hartzen du kontratua egikaritzearen erantzukizun osoa, Pleguak eta kontratuaren baldintzak zorrozki betez, SPKLaren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen, gizarte eta lanaren arloetako betebeharrak barne.

Erakunde kontratatzaileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuak ezagutzeak ez du aldatzen kontratista nagusiak erantzukizun esklusiboa izatea.

Azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketak eta ordainketa horien egiaztapena SPKLaren 216. eta 217. artikuluek xedatutakoaren arabera gauzatuko dira.

29. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratazio Organoak SPKLaren 205. artikuluak aurreikusitako kasuetan alda dezake kontratua.

Horrez gain, Kontratazio Organoak **Karatularen 24. puntuak** horretarako aukera ematen duenean eta puntu horretan aurreikusitako baldintza eta zehaztapenen arabera alda dezake kontratua.

Kontratuan aldaketak egiteak ez du esan nahi kontratuan aurreikusi gabeko aleko prezio berriak ezar daitezkeenik.

Kontratuaren aldaketak SPKLaren 153. artikuluan ezarritakoaren arabera formalizatu behar dira.

Hala eta guztiz ere, hornidura-kontratuaren prezioa prezio unitarioen bidez zehazten bada, hornitu beharreko unitate-kopurua kontratuaren prezioaren % 10eraino igo ahal izango da, SPKLren 205.2.c) .3. artikuluan aipatzen den bezala, eta ez da beharrezkoa izango dagokion aldaketa-espedientea izapidetzea, SPKLren 301. artikuluan xedatutakoaren arabera, zeina berariaz aplikagarri deklaratzen baita ondorio horietarako.

30. JASOTZEA ETA BERMEAREN EPEA

Kontratistak kontratua betetzat joko da, baldin eta, Baldintza Teknikoen Agiriaren 4. Klausulan jasotakoaren arabera, kontratuaren baldintzen arabera eta erakunde kontratatzaileak nahi bezala egin badu prestazio osoa.

Egindako lanak, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, ez bazaizkio kontratatutako prestazioari egokitzen, erakunde kontratatzaileak uko egin diezaioke, eta ez du ordaindu beharko edo eskubidea izango du ordaindutako prezioa berreskuratzeko, hala badagokio.

Hori guztia 26. klausulan aurreikusitakoari kalterik egin gabe. Erakunde kontratatzaileak zigorrak eskatu ahal izango ditu, bai eta kalte-galeren ordaina ere, berandutzeagatik, kontratatutako prestazioak gaizki betearazteagatik eta/edo beste edozein kontratu-baldintza ez betetzeagatik.

Bermearen epea **Karatularen 25. puntuan** jasotzen da.

Berme-epe horretan hornitutako ondasunetan akatsak edo hutsak daudela egiaztatzen bada, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari erreklamatzeko desegokiak diren ondasunak birjar ditzala edo, nahikoa bada, konpondu ditzala.

Baldin eta Kontratazio Organoak, berme-epean zehar, irizten badio hornitutako ondasuna ez dela egokia lortu nahi den helbururako, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, eta uste badu ondasun hori berrezartzea edo konpontzea ez dela nahikoa izango helburu hori lortzeko, epe hori amaitu baino lehen, ondasuna atzera bota ahal izango du, kontratistaren kontura utzita eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita, edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Behin berme-epea amaituta erakunde kontratatzaileak klausula honetan aipatutako erreparorik edo salaketarik formalizatzen ez badu, kontratistak ez du emandako prestazioaren erantzukizunik izango

31. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratatzaileak kontratua eten dezake, ondorio hauetarako aplikaziozkoa den SPKLaren 208.2 artikuluan ezarritako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari, betiere.

32. KONTRATUA IRAUNGITZEA

Kontratua iraungiko da burutu denean edo jarraian araututakoaren arabera adostutako erabaki bidez.

Hauek dira kontratua erakunde kontratatzailearen borondatez ezeztatzeko arrazoiak:

a) Konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea, beste edozein prozeduratan.

b) Kontratistak epeetako batean atzeratzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Oinarrizko beste betebeharrak ez betetzea, oinarrizkotzat kalifikatu badira, betiere.

e) Prestazioa hasieran hitzartutako baldintzetan egin ezin izatea, kontratua Plegu honetan aurreikusitakoaren arabera aldatu ezin denean.

f) Kontratua egikaritu bitartean, kontratistak kontratuan parte hartzen duten langileei soldata ez ordaintzea, edo kontratua egikaritu bitartean ere, langile horiei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

g) Oro har, kontratuko betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluak xedatutakoaren arabera.

h) SKPLaren 306. artikuluan kontratua ezeztatzeko jasotzen diren arrazoiak berariaz aplikatu behar dira. Hona hemen:

1. Hornikuntza hasi aurretik atzera egitea, edo Kontratazio Organoari egotz dakion arrazoi batengatik, kontratuaren hasiera lau hilabete baino gehiagoz etetea, kontratuan adierazitako hasiera-datatik zenbatzen hasita.

2. Behin hornikuntza hasita atzera egitea edo Kontratazio Organoak kontratua zortzi hilabetez baino gehiago eteteko erabakia hartzea.

Klausula honetan kontratua ezeztatzeko aurreikusten diren arrazoietako edozeinetan, automatikoki ezeztatuko da, eta horretarako baldintza bakarra izango da erakunde kontratatzaileak kontratistari jakinarazpen fede-emailea igortzea, erabaki hori hartu duela adierazteko.

Behin jakinarazpena jasota, kontratistak erakunde kontratatzaileari berehalakoan eman behar dizkio kontratatutako prestazioak emateko helburuz une horretara arte egin dituen agiri guztiak eta baita kontratuaren harira sortu duen gainontzeko dokumentazioa eta informazioa ere, erakunde kontratatzaileak erabili eta kontratistari eman dizkion agiri guztiekin batera. Aipatutako dokumentazio hori guztia erakunde kontratatzailearen jabetzakoa bihurtuko da.

Hala ere, gero, kontratuaren likidazio ekonomikoa egin daiteke, jarraian araututakoaren arabera.

Kontratua klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik ezeztatzean sortzen diren erantzukizun ekonomikoak eta legez bidezkoak diren beste edozein erantzukizun kontratua erabat deuseztatu ondoren kitatuko dira, eta ez dute erakunde kontratatzaileak kontratua egikaritzen jarraitzea eragotziko.

Kontratua ezeztatzen den kasu orotan, kontratistak, printzipioz, benetan egin dituen eta onartu diren prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen arrazoi batengatik ezeztatu denean, erakunde kontratatzaileak, dagozkion kalte-galeren ordainez gain, **Karatularen 26. puntuan** jasotako zenbatekoa jasoko du, eta aipatutako kalte-ordainari gehituko zaio. Zenbateko biak behin betiko bermetik eta kontratistak kobratzeke duen preziotik kenduko dira, eta gainetiko zenbatekorik balego, dagokion erreklamazioa egingo da.

Dena dela, SPKLaren 307. artikuluaren 2. eta 3. atala berariaz aplikatu beharrekoa da, hau da:

a) Klausula honen h.1 hizkian aurreikusten diren ezeztatze-kasuetan, kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztien truke, kontratuaren esleipen-prezioaren (BEZ kanpo) % 3ko kalte-ordaina jasotzeko soilik.

b) Klausula honen h.2 hizkian aurreikusten diren ezeztatze-kasuetan, kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztien truke, kontratuaren esleipen-prezioaren (BEZ kanpo) % 6ko kalte-ordaina jasotzeko soilik, eman gabe geratu diren zerbitzuei dagokienez, eta irabazi industrial gisa.

Azkenik, erakunde kontratatzaileak eta kontratistak elkarrekin ados dezakete kontratua ezeztatzea, eta kasu horretan, alderdien eskubideak haiek baliozki ezarritakoaren araberakoak izango dira.

33. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da, eta Berariazko Administrazio Klausulen Pleguak eta Baldintza Teknikoen Pleguak arautzen dute haren prestaketa eta esleipena. Agiri horietan aurreikusten ez diren kasuetan, SPKLak eremu horretan ezartzen dituen arauek erregulatuko dute (botere esleitzaile izanik herri-administrazio ez diren sektore publikoko erakundeek egiten dituzten eta arauketa harmonizatuari lotetsita ez dauden kontratuen kasuan).

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, Berariazko Administrazio Klausulen Pleguak eta Baldintza Teknikoen Pleguak arautzen dute kontratua, eta horietan aurreikusten ez diren kasuetan, zuzenbide pribatuko arauek. Dena den, SPKLaren 319. artikuluan ezarritako arauak, "Ondorioei eta iraungitzeari" buruzkoak, aplikatuko dira.

Horrez gain, SPKL eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena, aplikatuko dira, Pleguak arauzko testu horiei berariaz heltzen dien kasu guztietan.

Nolanahi ere, datu pertsonalen babesari buruzko araudi nazionalaren eta Europar Batasunaren araudiaren mende egongo da kontratua.

34. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du kontratua prestatu, esleitu eta aldatzearekin lotutako auzi guztiak ebazteko eskumena, ebazpen horiek aurkaratzeko oinarria denean SPKLaren 204. eta 205. artikuluak bete ez izana eta irizten zaionean aldaketa hori adjudikazio berri batean egin behar zela.

Hala behar izanez gero, errekurtsoa jarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean, SPKLko 44. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitakoaren arabera.

Jurisdikzio zibilak izango du alderdien arteko auziak ebazteko eskumena, kontratuaren ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketen kasuan izan ezik.

Donostian, 2023ko martxoaren 22an,

35775793Y ENEKO GOIA (R: P2007400A)
Digitalki sinatuta norengandik: 35775793Y ENEKO GOIA (R: P2007400A)
Data: 2023.04.12 12:58:19 +02'00'

Eneko Goia Laso
Fomento de San Sebastián, S.A. sozietateko Presidentea

I. eranskina. Abal-eredua.

[…] (kreditu-erakundearen edo elkar bermatzeko sozietatearen izen soziala) erakundeak, […] IFZ zenbakidunak eta […] helbidean egoitza duenak (jakinarazpenak eta errekerimenduak egiteko), eta, haren izenean, […] jaunak/andreak (ahaldunaren izen-abizenak), egintza honetan behartzeko ahalorde nahikoarekin, agiri honen behealdean jasotako ahalorde-askiespenaren arabera, ABALA ematen dio honi: […](e)ri (abalatuaren izen-abizenak edo izen soziala), […] IFZ zenbakidunari, […](r)en aurrean, […] euroko zenbatekoan, kontratu honen betebeharrei erantzuteko: **[…] ZERBITZUAK.**

Erakunde abal-emaileak haren erantzukizunpean adierazten du bete egiten dituela urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzekoak, 56.2 artikuluan ezarritako baldintzak. Abal hau obligaziodun nagusiarekiko solidarioki eman zaio, eta esklusio- eta zatiketa-onurei berariaz uko egingo die eta […](e)k lehen errekerimendua egin bezain pronto ordainduko duela hitzeman.

Abal hau indarrean izango da Donostiako Sustapena SAk abala kitatzea edo itzultzea baimentzen duen arte.

[…]n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

II. eranskina. Adierazpenen notario-aktaren eredua, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritzen bada eskatutako kaudimena eta/edo baliabide-atxikipena egiaztatzeko.

[OHARRA: Lizitatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu duenean baino ez da eman behar, baldin eta beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritzen bada eskatutako kaudimena eta/edo baliabide-atxikipena egiaztatzeko. ***Hirugarren erakundeak aurkeztu behar du****]*

[…] jaunak/andreak, […] NAN zenbakidunak, […] enpresaren ([…] IFZ zenbakia) legezko ordezkari den heinean, adierazten du erabat ezagutzen dituela **[…]** kontrataziorako baldintzak, zeinera […] (enpresa lizitatzailearen izena) lizitatzailea aurkezten den. Halaber, adierazten du modu atzeraezinean lizitatzaile horren eskura jartzen dituela kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren baliabideak, lizitatzailea adjudikaziodun suertatuko balitz, eta berariaz onartzen du Kode Zibilaren 1257.2 artikuluak xedatutakoa. Horrez gain, […](e)k baimendu behar du baliabideak ordezkatzea edo aldatzea.

Idazki hau […](e)ri aurkezteak esan nahi konpromiso hori onartuko dela, lizitatzailea adjudikaziodun suertatuko balitz.

[…]n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

III. eranskina. Europako Kontratazio Agiri Bakarra.

[OHARRA: Kontratatzailearen profilean Kontrataziorako Europako Agiri Bateratuan (KEAB) PDF zein xml formatuetan lor daiteke]

IV. Eranskina. <u>Giza edota material baliabideen atxikipenaren konpromisoa</u>.

[……]Jaunak/Andereak, bere izenean edo [……] ordezkatzen, [……] egoitzan bizi denak eta NAN/IFK [……] zenbakia duenak, ahalmen juridiko eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetzarekin, […] lizitazioaz jabetuta, eskutitz honen bidez

AITORTZEN DU:

Esleitua ateratzekotan, kontratua gauzatzeko karatulak agintzen duen 10. puntuan eskatzen diren gutxiengo giza edota material baliabideak atxikitzeko konpromisoa hartzen duela.

Eta honela ager dadin eta eragina izan dezan, ondorengo giza baliabideei atxikitzeko konpromisoaren ziurtagiri hau idazten du. [……] (e)n, [……] (e)ko [……]ren [……] (a)n.

[Sinadura]

V. eranskina. Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei dagokien proposamena.

[…] jaunak/andreak, egoitza […] helbidean eta […] NAN zk. dituenak, bere izenean edo […](r)en ordez, egoitza […] helbidean eta […] NAN edo IFZ zk. dituena, gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna bete-betean dituela, […] kontratazioa prozedura irekia bidez esleitzeko lizitazioaren jakitun, honen bidez

ADIERAZTEN DU

1. Hitzematen duela […] kontratua egikarituko duela, baldintza hauen arabera:

➢ **Proposamen ekonomikoa:**

- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.1 A1 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.2 A1 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.3 A1' sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.4 A2 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.5 A2' sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.6 A3 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.7 A4 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.8 A5 sukalde motakoa, honela banakatuta:

- […] euro/unitateko
- […] BEZa

- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.9 A7 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.10 A7 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.11 A7 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.12 A7' sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.13 A7 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.14 E1-E2-E3 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.15 E1'-E2'-E3' sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa
- […] euro/unitatea (BEZa barne) CO.16 E4-E5 sukalde motakoa, honela banakatuta:
  - […] euro/unitateko
  - […] BEZa

➢ **Baloratzeko beste alderdi batzuk**

✓ 9 aste naturaleko **sukalde ekipamendua entregatzeko gehieneko epearekiko** murrizketa: _____ asteko murrizketa, hau da, eskaintzen den **sukalde ekipamendua entregatzeko gehieneko epea** _____ aste naturalekoa izango da.

- ✓ 7 aste naturaleko **sukalde ekipamendua instalatzeko gehieneko epearekiko** murrizketa: _____ asteko murrizketa, hau da, eskaintzen den **sukalde ekipamendua instalatzeko gehieneko epea** _____ aste naturalekoa izango da.

- ➢ **Berdintasun irizpidea**

  - ✓ **Kontratua gauzatzeari atxikitako gutxieneko giza baliabideek gutxienez 6 orduko prestakuntza izatea berdintasunaren arloan: Bai/Ez**

2. Kontratua arautzen duen kontratu-dokumentazioa ezagutzen duela, eta berariaz eta osorik onartzen duela.

[…]n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

VI. Eranskina Erantzukizuneko adierazpen Eredua

[…] jaunak/andereak, […] egoitzan bizi denak eta NAN […] zenbakia duenak, bere izenean edo […] ordezkatzen, […] egoitzan bizi denak eta NAN/IFK […] zenbakia duenak, ahalmen juridiko eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetzarekin, lizitazioaz jabetuta, prozedura irekiaren bidez, […] kontratatzeko, eskutitz honen bidez

AITORTZEN DU

Lehenengo.- Oraingo eskaintzaren aurkezpenaren egunean, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017ko legeko 71.artikuluan, azaroaren 8an, ezarritako debekurik ez duela. Ondorioz, Europar Parlamentuko eta Kontseiluaren Zuzentarauak 2014/23/EB eta 2014/24/EB, 2014ko otsailaren 26an ordenamendu juridiko espainolera igarotzen dira.

Bigarren.-Erakunde kontratatzaileak espresuki onartzen duela gardentasun instituzionala ematea amaiera arte lizitazio, esleipen eta gauzatze prozesutik eratorritako datu guztiei (esleitua izatekotan).

[……] (e)n, [……] (e)ko […….]ren […….] (a)n.
[Sinadura]

VII. Eranskina, Zerbitzarien kokapena eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak emateko lekua adierazteko eredua

[…] jaunak/andereak, […] egoitzan bizi denak eta NAN […] zenbakia duenak, bere izenean edo […] ordezkatzen, […] egoitza duena eta NAN/IFK […] zenbakia duenak, ahalmen juridiko eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetzarekin, berariazko klausula administratiboen pleguan ezarritako betebeharrak betetze aldera, honen bidez

AITORTZEN DU

1.- Hurrengo taulan, kontratua gauzatzetik eratorritako erakunde kontratatzailearen konturako datuen tratamenduari euskarria emango dioten zerbitzarien kokapena identifikatzen da, bai eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak non emango diren ere:

ZERBITZARIEN KOKAPENA
ZERBITZARIEI LOTUTAKO ZERBITZUAK EMATEKO LEKUA

2.- Kontratuaren bizitzan zehar deklarazio honetan emandako informazioan gertatzen den edozein aldaketa jakinaraztera behartuta dagoela.

[…] (e)n, 2023ko […]ren […] (a)n.

[Sinadura]